

BASABIZITZA

POLOTIK POLORA ETA ITSASOTIK SABANARA, animalia, landare eta paisaien argazki ikusgarriak ekarri dizkigu, aurten ere, Veolia Environnement Wildlife Photographer of the Year lehiaketak. Hona hemen *Elhuyar* aldizkarian egin dugun aukeraketa bat. Eta webgunean gehiago.



SAREAN+

Enperadoreak burbuila artean (Bubble-jetting emperors)

Paul Nicklen (Kanada)

Argazki hau izan da aurtengo irabazlea. Gogo handia zuen Nicklen-ek irudi hau lortzeko: eguzkiak argizatutako pinguino enperadore multzo bat, ziztu batean gorantz, atzean burbuila-arrastoak utziz. Ross itsasoan izan zen, Antartikan. Pinguinoentzako irteera-zulo aproposa izan zitekeenetik uretara sartu eta pinguinoen zain gelditu zen Nicklen, hodi batetik arnastuz eta geldirik egon ahal izateko hankak izotzari lotuta, pinguinoak beldurtu ez zitezen. Eta etorri ziren. Ez zen erraza hatz izotzuekin enkoadratzea eta enfokatzea; hain azkarrak ziren. "Ikuskizun zoragarria izan zen —dio Nicklenek—, ehunka atera ziren abiada bizian, nire gaineko izotzetara. Izugarri zorionekoa sentitu nintzen sekula ahaztuko ez dudan une hura bizi ahal izateagatik".



IKUSGARRIA





Gaeko arrisku-argia (Warning night light)

Larry Lynch (AEB)

Myakka River State Park-en, Floridan, sasoi lehorra zen, eta kaimanak aseta zeuden putzuetan harrapatuta gelditu ziren harrapakin errazekin. Kaiman handi honek “ez zuen presarik inora joateko —dio Lynch-ek—, beraz, tripodea eta kamera kaimanaren parean jarri, metro gutxira, eta haren begiak enfokatu nituen”. Ilunabarra zen, eta Lynch-ek minimoan jarri zuen flasha, nahikoa kaimanaren begietan isla gorri hori eragiteko.

Fairy Lake-eko izeia (Fairy Lake fir)

Adam Gibbs (Kanada/Erresuma Batua)

Vancouver uharteko mendebaldean dagoen Port Renfrew inguruan baso-mozketa handiak egin dira. Horregatik, Gibbsentzat sinbolikoa da Fairy Lake aintziraren erdian, enbor zahar baten gainean, bizi den Douglas izei txiki hau.



Elkarri neurria hartzen (Sizing up)
Klaus Tamm (Alemania)

Neridoen familiako euli hankaluze hauen dantzarekin sorginduta gelditu zen Tamm. Arren borroka-dantza zen. Elkarren inguruan biraka hasten ziren, eta elkarri bultzaka gero. Orduak eman zituen Tammek ikuskizun hari argazkiak ateratzen.



Bilketa arriskutsua (Perilous pickings)
Jenny E. Ross (AEB)

Itsaslabarrean elurrezko orbain bat zirudien hasieran, baina, gerturatutakoan, hartz zuri bat zela ikusi zuen Ross-ek. Novaya Zemlya artxipelagoan (Errusia), hartz gazte hau, labarrean behera egin nahian ari zen, ipar-martinen arrautzak helburu.





Entrenamendua (Practice run)
Grégoire Bouguereau (Frantzia)

Gepardo emeak gazela txikia harrapatu baina hil ez, eta bere kumeen zain gelditu zela ikusi zuen Bouguereauk. Ia hamar urte daramatza Serengetiko Parke Nazionalean gepardoak ikertzen, eta jokabide hura ezagutzen zuen: ehiza-lezioa hastera zihoan.



